

Ondare immateriala gizarteratzeko, musealizatzeko eta erakusketaratzeko erak, Euskal Herriko hainbat adibidetan

Ikaslea: Maddi Muñoz Esteban

Gradua: Artearen Historia

2019-2020

Tutorea: Haizea Barcenilla García

Saila: Artearen Historia eta musika saila

LABURPENA

Gizarte baten kultura-ondareak badu alderdi material bat eta, hura bezain garrantzitsua, alderdi immaterial bat. Orain arte ondare materiala gehiago landu bada ere, ondare ukiezina geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari da, haren inguruko legeek, musealizazio prozesuek zein gizarteratzeko ahaleginak adierazten duten moduan.

UNESCOk hartu zuen ondare mota honen marko juridiko teorikoa gauzatzeko ardura, konbentzio eta ikerketa ezberdinen bitartez garatzen joan dena. Hala ere, lekuan lekuko herrialdeen legeak izango dira ondare horren ardura izango dutenak. Euskal Herriaren kasuan, horrek badu bere konplexutasuna, ondare bera bi estatutan eta hiru antolakuntza politikotan banatzen bait da. Beraz, legedi ezberdinak arduratzen dira ondare berberaz, horrek dakartzan zailtasun guztiekin.

Bestalde, garrantzitsua da ondarea, eta lan honi bereziki dagokion ondare immateriala gizarteak eskuragarri edukitzea. Ondarea immateriala gizarteratzeko, baliabide zein euskarri ezberdinak erabili izan dira. Lan honek Euskal Herriko ondare immateriala gizarteari erakusteko unean jorratu diren proiektu ezberdinak landu ditu, horretarako erabili diren baliabide zein euskarri ezberdinen inguruan hausnarketa eginaz. Alde batetik, online eskuragarri topatu daitezkeen errekurtsuak azaldu ditut. Bestetik, ondare horren ukiezintasuna ikus-entzunezkoen bidez landu duten zenbait artisten lanak. Eta azkenik, ondare immaterialaren inguruan egin izan diren bi erakusketen adibideak landu ditut.

Orain arte museoek arreta ondare materialari eman badiote ere, ondare immaterialaren erakusgarritasunak eta honen erakusketaratze prozesuan egin beharreko lanak geroz eta pisu handiagoa hartzen joan dira museoetan. Horretarako, museografia tradizionalak nekez balio duenez, ondare mota horren erakusketaratzeak paradigma berriak ireki ditu museografiaren alorrean. Azpimarratzekoa da Museologia Berriak, 70. hamarkadaren hasieran indarra hartzen joan zenak, museoetako ateak ireki zizkiola ondare ukiezinari. Gizatalde hegemonikoen mesedetan, helburu zehatz batzuetarako, eraikitzen joan den konstrukzio soziala da ondarea. Historikoki, ondare horren unibertsaltasuna azpimarratu bada ere, gaur egun ondarearen oinarri tradizionalak irauli eta zalantzan jarri ditu zenbait kolektibok.

Ondarea oro har, ondare immateriala bereziki, eta haren gizarteratzea, museoan eta erakusketen bidez, fisikoak izan ala digitalak, galderaz eta zalantzaz beterik dagoen alorra da. Galdera eta kezka horietara inguratu nahi izan du lan honek.

AURKIBIDEA

SARRERA	5.orr
ONDAREAREN IMMATERIALAREN NONDIK NORAKOAK	6.orr
EUSKAL HERRIKO HAINBAT ADIBIDE	12.orr
a. ARTXIBATEGIAK ONLINE	12.orr
b. ARTELANAK	16.orr
c. ERAKUSKETAK	21.orr
ONDARE IMMATERIALAREN ERAKUSKETARATZE ETA	
MUSEOGRAFIZATZE JOERAK	24. orr
ONDORIOAK	28. orr
BIBLIOGRAFIA	29.orr

SARRERA

Ondarea, eta zehazki ondare immateriala, gaurkotasun handiko gaia da. Gradu amaierako lana hau horren inguruan garatzea erabaki dut, pil-pilean dagoen gaia izateaz gain, gaiaren inguruko artikuluak zein albisteak irakurtzean joan naizen heinean gaiarekiko interesa piztu zaidalako.

Lan honen helburua ondarearen eta bereziki ondare immaterialaren zenbait aspektu mahaigaineratzea izan da. Ondare ukiezinak orain arte ez du ondare materialak eduki duen ikusgarritasunik izan. Eta beraz, honek sortu ditzaken zalantza askori ez zaio sakonki erreparatu. Lan honetan, ondare immaterialaren nondik norakoez, ondare mota honen gizarteratzeko baliabideez eta hau musealizatzeko aukerez hitz egin nahi izan dut. Horretarako, Euskal Herriko ondare immateriala landu duten hainbat proiektu erabili ditut adibide gisa.

Alde batetik, ondare immaterialaren difusioan online dauden errekurtsoen erabilgarritasuna adierazteko, ahozko memoria zein soinuen memoria landu dituzten bi proiektu plazaratu ditut. Ondoren, ondare immaterial bat, zehazki pilotaren jokoia hautatu dut. Artista ezberdinek gai hau nola jorratu duten azalduko dut, batez ere azpimarratuz, gizarteratzeko beste modu bat immaterialtasun hori euskarri material batean gauzatzea izan daitekela. Kasu honetan, ikus-entzunezkoa izan da landu dudana baliabidea. Azkenik, erakusketetan zentratu naiz. Erakusketak ere izan dira ondare ukiezin horren berri emateko erabili den beste errekurtsorik bat. Ideia hau garatzeko, ondare immateriala landu duten bi erakusketen adibide jarri ditut. Eta bereziki, euskararen gaia landu duen erakusketan sakondu dut.

Azken atala museoetan zentratzen da. Ondare hau musealizatzeko modu posibleez zein zailtasunez arituko naiz.

Metodologiari dagokionean, errekurtsorik ezberdinez baliatu naiz. Alde batetik, batez ere lehengo zatian nabarmenki erabili ditudan legeak daude. Iturri hauek baliagarriak suertatu zaizkit ondarearen nondik norakoak adierazteko. Bigarren atalean, ondare ukiezinaren gizarteratzeko prozesuan aipatu ditudan adibideek jorratu ahal izateko, bibliografiatik abiatu naiz. Hala ere, bibliografiaren aukeraketa neketsua egin zait,

ondareaz asko idatzi bada ere, beti ere, arreta ondare materialean jarri izan da eta ondare immaterialaren inguruan ez da gehiegi sakondu, beraz, honen inguruko idatziak ere urriagoak dira. Hortaz, bestelako iturri eta dokumentu motak baliagarriak egin zaizkit: proiektu ezberdin hauen web orrialde ofizialak, erakusketaren katalogoa eta erakusketako komisarioari egindako elkarrizketa. Hala ere, esan beharra dago ondarea immateriala oraindik ere lantzeke dagoen alorra izanik etorkizunean egingo diren ikerketa, lanketa zein proposamen berrietara irekita geratzen dela gradu amaierako lan hau.

1. ONDARE IMMATERIALAREN NONDIK NORAKOAK

Euskal Herriak, beste kultura guztiek bezala, badu bere ondare material eta ez materiala. Orain arte garrantzia bereziki ondare materialari eman bazaio ere, hori aldatzen ari da eta ondare immateriala babesteko geroz eta ahalegin handiagoak egiten ari dira. Baina zeri egiten diogu erreferentzia ondare immaterialaz ari garenean? Nork hartu du horren inguruan lanketa bat egiteko ardura? Norena da ondare mota hori? Inklusiboa da? Edo eta gizartearen zati zehatz bati baino ez dio erreferentziarik egiten?

Ondare immateriala herrien tradizioen alde ez fisikoaz osatzen da. Hizkuntzak, musika, zeremoniak, errituak, jaiak ospatzeko erak, sozializatzeko moduak, tradizio oralek osatzen dituzten espresio kulturalak sartzen dira multzo honetan.¹ Tradizioak bere garrantzia du ondare immaterialaren munduan. Baina tradizioa ez da ulertu behar elementu aldaezin bezala. Tradizioak iraganaren eta orainaren arteko zubi dira, praktika kultural horiek aldatu egiten baitira garaian garaiko denbora eta espazioaren aldaketan arabera.² Beraz, tradizioaren eguneratzea etengabe ematen da.³

Badago ondare materiala eta immateriala errotik banatzeko ohitura. Baina geroz eta gehiago azpimarratzen da bata besteak elikatzen duela eta bien arteko banaketa

¹ÁNGELES QUEROL, M: *Manual de Gestión de patrimonio cultural*. Querol, Ediciones AKAL, 2010.

² HERNÁNDEZ I MARTI, 2005 Cit in. GONZÁLEZ CAMBEIRO, S.: "La salvaguarda del patrimonio inmaterial en España". Universidad Complutense de Madrid. Tesis doctoral. Madrid, 2015. 7orr. <https://eprints.ucm.es/38177/1/T37405.pdf>

³ CRUCES ROLDÁN, C.: *El flamenco como objeto de deseo. Autenticidad, mercado y políticas culturales*", PH Cuadernos 17: 147-155 cit in GONZÁLEZ CAMBEIRO,S.: "La salvaguarda del patrimonio inmaterial..." op cit. 7.orr <https://eprints.ucm.es/38177/1/T37405.pdf>

artifiziala dela. Materialak beti du immaterialetik eta immaterialak maiz elikatzen da materialetik. Materiala estatikoa da immateriala mugikorra den era berean.

Idea hauetan guztietan sakondu baino lehen, gustatuko litzaidake ondare immaterialaren eta harekiko arduraren inguruan sortu den legediaz zenbait datu ematea. Bereziki UNESCOk hartu zuen ondare immaterialaren inguruko araudia ezartzeko ardura. Horretarako, bilkura eta ahalegin ezberdinak egin izan dira urteetan ondare mota horren babeserako eta sustapenerako. Hau da UNESCOk gaur egun onartua duen kultura eta ondare immaterialaren definizioa, *2003ko Kultura-ondare ukiezina babesteko konbentzioan (Convention for the Safeguarding of the Intangible Cultural Heritage)* bilkurako 2. artikuluan, definitua izan zena:

*“kultura-ondare immateriala da komunitateek, taldeek eta, kasu batzuetan, gizabanakoek beren kultura-ondarearen osagai gisa onartzen dituzten erabilerak, adierazpenak, ezagutzak eta teknikak, berezko dituzten tresna, objektu, eta kultura-espazioekin batera. Kultura-ondare immaterial hori belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, eta komunitateek eta taldeek etengabe birsortzen dute beren ingurunearen, naturarekiko elkarrekintzaren eta historiaren arabera, identitate eta jarraipen sentimendua sortuz eta, horrela, kultura-aniztasunaren eta giza sormenaren errespetua sustatzen lagunduz. Konbentzio honen ondoretarako, kontuan hartuko da, soil-soilik, giza eskubideen nazioarteko tresnekin bateragarria den kultura-ondare immateriala, bai eta komunitateen, taldeen eta gizabanakoen arteko errespetua eta garapen jasagarria ere”.*⁴

Ondare immaterialak babesa eskatzen du, ondare materialarekin alderatuz gero zailtasun handiagoak erakusten dituelako babesteko orduan eta, gaur egungo mundializazioaren eta globalizazioaren ondorioz, desagertzeko arriskuan daudelako asko eta asko. Ondare hau beharrezko faktore kontsideratzen da gizakien arteko gertutasunerako, elkar trukatzeko eta bizikidetzarako.⁵

Nazioartean ondare mota honen babesa sustatzeko UNESCOk bilkura eta aktibitate ezberdinak egin izan ditu. Hasteko, 2003. urtean Kultura- Ondare immateriala

⁴ Kultur Ondarea Immateriala Babesteko Konbentzioa, 2. artikulua

⁵ GONZÁLEZ CAMBEIRO, S.: "La salvaguarda del patrimonio inmaterial..." op. cit. 17. orr

Babesteko Konbentzioa (*Convention of the Safeguarding of the Intangible Heritage*) ospatu zen, baina 2006. urteko apirilaren 20an sartu zen indarrean.⁶ Konbentzio horren funtzio nagusia lehen tratatu internazionala egitea izan zen. Marko juridiko, administratibo zein finantzario bat zehaztu zuten ondare mota honen babesa bermatzeko.⁷ Bestetik, urte luzeetako lanketaren ostean, hauek izan ziren konbentzioko 1. artikuluan azaldu zituzten helburuak:

- a) Ondare immaterialaren babestea.
- b) Komunitate, talde, zein norbanakoaren ondare kultural immaterialarekiko errespetua azaltzea.
- c) Maila lokal, nazional eta internazionalen ondare kultural immaterialaren sentsibilizazioa bultzatzea eta aitortzea.
- d) Kooperazioa eta laguntza internazionala ematea.⁸

2010. urtean bi zerrenda garatu ziren, alde batetik, Gizateriaren Kultura-Ondare Ez-materialaren Zerrenda Ordezkarria (*Representative list of the intangible cultural heritage of humanity*), ondare immaterialari ikusgarritasuna emateko, zein honen beharraren kontzientzia zabaltzeko, beti ere aniztasun kulturala errespetatzeko xedez. Beste zerrenda, aldiz, Premiazko babes-neurriak behar dituen kultura-ondare ez-materialaren zerrenda (*List of intangible cultural heritage in need of urgent safeguarding*) da, larritasun handia zuten praktika kulturei babesa ahalik eta azkarren emateko egina.

Euskal Herriaren ondare immaterialari arreta jarriz, konplexutasun ugari dituela ikus dezakegu. Horietako bat ondare bera bi herrialdeetan banatzen dela da. Alde batetik Iparraldea dugu, Frantziaren legediaren menpe dagoena, eta bestetik Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) eta Nafarroa. Hauek beraien artean ere legedia ezberdina edukiko dute baina, biak Espainiaren legediaren menpe egongo dira. Egoera konplexu hau kontuan edukita, ondarea immaterialari dagokion Espainiar zein Frantziar legedia azalduko dut laburki.

⁶ “El texto de la Convención para la Salvaguardia del Patrimonio Inmaterial”, UNESCO: <https://ich.unesco.org/es/convenci%C3%B3n> (2019ko maiatzaren 3an kontsultatua)

⁷ “¿Qué es el patrimonio cultural inmaterial?”. UNESCO <https://ich.unesco.org/doc/src/01851-ES.pdf> (2019ko maiatzaren 4ean kontsultatua)

⁸ Kultur Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioa, 1. artikulua

Espainiari dagokionean, ondare kultural immateriala neurri internazional, nazional, autonomiko zein, kasu batzuetan, neurri lokalen bidez babesten da.⁹ Hasiera batean, ez zen neurri orokorrik zehaztu ondare immaterialen inguruan, baina horrek ez zuen esan nahi zaintzen ez zirenik. 1978ko Espainiako Konstituzioan antzeman daiteke ondare immaterialaren lehengo aztarna, asko sakontzen ez bada ere. Hitzaurrean, 3.3. puntuan Espainiako nazioari honakoa agintzen zaio: "*Espainiar guztiak eta Espainiako herri guztiak babestea giza eskubideen egikaritzan, baita beraien kultura eta tradizioak, hizkuntzak eta erakundeak ere.*"¹⁰

1985eko ekainaren 25ean, *Patrimonio Histórico Españolaren* barnean ondare immateriala beste modu batean aztertzen du, ondare etnografikoaz hitz egiten du. 46. Artikuluak. Honako hau dio: "*Espainiako Ondare Historikoaren parte dira ondasun higigarriak eta higiezinak, bai eta alderdi material, sozial edo espiritualetan Espainiako herriaren kultura tradizionalaren adierazgarri diren edo izan diren ezagutzak eta jarduerak ere.*"¹¹

Hala ere, azpimarratzekoa da, gaurkotasun handiko gaia izanagatik ere, oraindik ere ondare immaterialaren inguruko ordenantza juridikoak sakonki garaturik gabe daudela. Frantziari dagokionean, zehazki ondare immaterialaren inguruko legeak topatzen zailtasunak izan ditut. Frantziako estatuak estruktura zentralista handiagoa du espainiar marko konstituzionalarekin alderatuz gero, hau askoz ere deszentralizatuagoa baitago.¹² Horregatik Iparraldeak ez du lege zehatzik bere ondare kultura immaterialari dagokionean. Iparraldea ez da dago eskualde bezala onartua, Akitaniaren barnean kokatzen da. Akitania berak ere ez du ondare immaterialaren inguruko lege propiorik, aipatutako zentralizazioa dela eta.

Espainiaren baitan, Nafarroak eta EAEk desberdintasunak dituzte. Alde batetik Nafarroako legediak, 2005. Urteko azaroaren 22an argitaratutako Lege Foralaren baitan,

⁹GONZÁLEZ CAMBEIRO, S.: "La salvaguarda del patrimonio inmaterial..." op. cit. 10.orr

¹⁰ 1978ko Espainiako Konstituzioa, hitzaurrea, 3.3. puntua

¹¹ 16/ 1985 legea, Patrimonio Histórico Español, 46. artikulua

¹² BALTÀ PORTOLÉS, J.: "El ejemplo francés. Cómo protege Francia la Cultura". VIII Foro de Industrias Culturales. (Azaroa 2016) Madrid, Fundación Santillana y Fundación alternativas, 2016. 48.orr https://www.fundacionalternativas.org/public/storage/recursos_descargas/aaf6581d1ac124fb62b20b8e2c046e85.pdf

53 eta 54. artikuluek hitz egiten dute ondare immaterialaz. Honako hau dio: *“Interes kulturalako ondasun immaterialak edo inbentariatuak babesteko araubidea deklarazioan ezarritakoa izango da, eta berariaz ezarriko ditu horiek kontserbatzeko eta hedatzeko egokienak diren babes eta sustapen-neurriak. Halaber, Foru Komunitateko Administrazioak ikerketa sustatzeko neurriak antolatuko ditu, ondasun horien ezagutza osatzeko edo hobetzeko. Kulturaren arloko departamentu eskudunak Nafarroan garrantzi kultural berezia duten Ondasun Ez-materialen Inbentariobat egingo du, non ondasun horiek dokumentatuko diren, identifikatzeko eta babesteko”*.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua aldiz ezberdina da. 1979ko Autonomia Estatutuaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak eskumen eskusiboa baitu ondare kulturalari dagokionean. Eusko Jaurlaritza arduratzen da, beraz, euskal ondarearen garapenaz, babesaz eta zabalkuntzaz. Eskumen hori Euskal Kultura Ondarearen Legean zehaztua izan zen. Lege horretan Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiekin zein udaletxeekin batera arduratuko da ondare kultural horren babesaz eta zabalkuntzaz.¹³

1990an argitaratutako Euskal Kultura Ondarearen Legearen 51. artikuluan, ondare etnografikoari buruzko kapituluaren baitan, lehenik eta behin honen definizioa ematen da. *“Ondare etnografikotzat hartzen da Euskal Herriko kultura tradizionala agertzen den ondasun material eta immaterialen multzoa”*¹⁴ Ondoren, 53. Artikuluak honako hau dio¹⁵: *“Ondasun etnografiko ez-materialak, hala nola erabilerak, ohiturak, sorkuntzak, portaerak, ager daitezkeen hondakin materialetatik harago doazenak; Administrazio eskudunak babestuko ditu, lege honen arabera, eta, horretarako, ikertu egingo dira eta euskarri materialetan zehatz-mehatz bilduko dira, etorkizuneko belaunaldiei transmitituko zaizkiela bermatzeko”*.

Lege hori berritzen ari dira egun. Lege aurreproiektua Legebiltzarrean dago orain, onartzeko prozesuan baina sarean topa daiteke dokumentua. 11. artikulua izango da ondare immaterialaren inguruan ariko dena; kultura- ondare immateriala babesteko kategoriak.

¹³ GONZÁLEZ CAMBEIRO,S.: ”La salvaguarda del patrimonio inmaterial...” op. cit. 42. orr

¹⁴ 7/1990 legea, Euskal Kultura Ondarearena, V. kapitulu, 51. artikulua

¹⁵ 7/1990 legea, Euskal Kultura Ondarearena, V. kapitulu, 53. artikulua

Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasun immaterialak gutxienez kategoria hauetan sailkatu ahalko dira, zeinak beren artean iragazkorrak izango diren:

- a) Kulturaren ahozko tradizioak eta adierazpideak; hizkuntza barne, kultura-ondare immateriala den aldetik.*
- b) Ikuskizun-arteak.*
- c) Usadio sozialak, erritualak, jai-ekitaldiak eta kirol tradizionalak.*
- d) Eskulangintzari buruzko jakintzak eta teknikak.*
- e) Elikatzeko moduak eta sukaldaritza sistemak.¹⁶*

Behin legediari erreparatu ostean, garrantzitsua iruditzen zait ondare immaterialaren beste aspektu batzuk kontuan edukitzea. Hala nola, ondare horren eraketa. Gizartearen beste elementu asko eta asko bezala, ondarea eraketa sozial bat da, erabaki ez neutralen bidez eraiki dena¹⁷, eta talde hegemonikoen intereserako eratu eta moldatua izan dena.¹⁸ Beraz, hemen ikusi daiteke ondarea ere gizartean nagusi diren taldeen zerbitzura moldatua dagoela, gizartean hierarkizazioak sortuz, baita haustura sozialak ere. Eta hori ondare mota guztiekin gertatzen da.¹⁹ Nahiz eta ondarea neutrala dela esan izan den, *gu* unibertsal batena, talde minoritario askok ez du bere burua bertan islatua ikusten. Beraz, ondarea ez da unibertsala, ez da bakarra. Ondarea orain arte eraiki den modu horri kontra egin eta zalantzan jarri nahian, ARCHS (*Association of Critical Heritage Studies*)²⁰ elkarteak ikerketa kritikoaren ildotik zabaldu nahi izan du ondarearen kontzeptua, hau da, ondarea definitzeko eta osatzeko historikoki erabili diren moduak alboratu, orain arte kontuan eduki ez diren taldeen alde egiteko.

Ondarearen alorrean baztertua izan den taldeetako bat emakumeena izan da. Ondarea, aipatu bezala, gizartearekin erlazio estu eta zuzenean dagoenez, bera ere

¹⁶ 6/2019 legea, Euskal Kultura Ondarearena. II. titulua, 11. artikulua

¹⁷ JIMÉNEZ- ESQUINAS, G: “El patrimonio (también) es nuestro. Hacia una crítica patrimonial feminista” in ARRIETA URTIZBEREA, I. (ed): *El género en el patrimonio cultural*. Bilbo, Universidad del País Vasco/ Euskal herriko Unibertsitatea, , 2017 19-48. orr 21. orr.

¹⁸ JIMÉNEZ MADARIAGA, C.: “La musealización del patrimonio etnológico” in CUENCA LÓPEZ, J.M. eta GONZÁLEZ PARRILLA J.M.: *La musealización del Patrimonio*. Huelva, Universidad de Huelva, 2009, 65. orr.

¹⁹ JIMÉNEZ- ESQUINAS, G: “El patrimonio (también) es nuestro...” op. cit. 23. orr.

²⁰ Association of Critical Heritage Studies: <https://www.criticalheritagestudies.org/> (2020ko urtarrilaren 8an kontsultatua)

patriarkatuarenpean eratuta dago.²¹ 1960 eta 1970 hamarkadatan hasi zen zenbait emakume feminista ondare ustez unibertsalaren zalantzagarritasunaz hausnartzen. Horregatik, ondarearen kritikagarritasuna lantzerako unean, kritika feministak beharrezkotzat jo izan dira. Emakumezkoen ahotsa historiaren eraketan kontuan hartu ez den era berean, ondarearen eraketan ere bazterrean geratu da, gizonezko zurien mesederako. “Gizonek egina da emakumeen historia guztia.(...) gizonek sortu dituzten balioak, usadioak, erlijioak; emakumeak sekula ez ziren lehiatu nagusitasun hori kentzeko”.²² Hori zioen Simone de Beauvoirrek bere *Bigarren Sexua* lanean. Aipua egokia litzateke historia hitza ondare hitzaz ordezkaturako bagenu ere.

Laburtzeko, ondare immaterialaren marko juridikoa urria eta konplexua izateaz gain, hein haundi batean oraindik ere lantzeke dagoen esparrua da. Bestetik esan, ondarea konstrukzio soziala dela eta diskurtso hegemoniko bat dela gailentzen dena. Beti ere, diskurtso horretan begirada eurozentrikoak eta patrialkalak garbi nagusitzen dira beste motatako ikuspuntuak bigarren maila batean utziz, hala nola, herrialde ez okzidentalak, herrialde indigenak, emakumeak, pertsona ezgaituak, etab²³. Gaur egun, bai kolektibo feministetatik zein beste kolektibo batzuetatik ondarearen oinarri hori zalantzan jartzen ari dira, horren gaineko eztabaida zein kritika berrituaz.

2. EUSKAL HERRIKO HAINBAT ADIBIDE

Behin ondarearen nondik norakoak azaldu ostean, Euskal Herriko zenbait adibide ezberdinen bitartez, ondare immateriala gizarteratzeko erabili diren estrategia ezberdinak azalduko ditut. Hiru bloketan sailkatu dut zati hau. Alde batetik online artxibategiak daude, online errekurtsio gisa. Bestetik, ikus-entzunezkoen erabilera. Eta bukatzeko, erakusketak.

2.1. ARTXIBATEGIAK ONLINE

Teknologia berrikuntzak izugarritzko abantaila ekarri du ondare immateriala lantzeko unean. Berrikuntza horiek immaterialtasuna adierazteko unean baliagarriak dira,

²¹JIMÉNEZ- ESQUINAS, G: “El patrimonio (también) es nuestro...” op. cit. 19. orr.

²² BEAUVOIR, S.: *Bigarren sexua [Bizi izandako esperientzia]*. Donostia, Elkar- Jakin, 2019. 158. orr

²³ JIMÉNEZ- ESQUINAS, G: “El patrimonio...” Ibid. 22.orr

ukiezina den hori komunikatzeko lagungarriak direlako.²⁴ Jarraian azalduko ditudan bi adibideetan, bai ahozko ondarea zein soinu ondarea, posible izan da, teknologiari esker, online plataforma batean ezartzea eta eskuragarri jartzea.

Atal honi hasiera emateko, ahozko ondarearen inguruan lan egiten duen *Ahotsak.eus* proiektua azaldu nahi dut. Zein da ahozko ondareak herri baten inguruan ematen digun informazioa? Online bidez kontsultatu daitekeen proiektu honen xedea, Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatu eta hedatzea izan da. Horretarako adineko jendea aukeratu dute eta hauei egindako elkarrizketa batzuen bidez, euskara ezberdinak jasotzeaz gain, tokian tokiko bizipenak ere jaso dituzte. Proiektua Eibarren gauzatzen hasi zen *Eibartarren ahotan* proiektuan du oinarri. Proiektua garatzen joan da, eta software librean online dagoen proiektua da gaur egun: *ahotsak.eus*.²⁵

Ahotsak.eus ez da ahozko ondarearen inguruan sarean topatu daitekeen proiektu bakarra. Fonoteka ezberdinak egon badaude, asko eta asko ordaindu beharrekoak, eta beste batzuk doan badira ere, ez dute bolumen handirik izaten. Horregatik, proiektu honek erreferenteak eduki baditu ere aitzindaria dela kontsideratzen da.²⁶ Eskozian bada proiektu bat, *Island Voices*²⁷ izenekoa, ahozko historia eta folklorea biltzea helburu duena, eta hemen ere elkarrizketa izan da informazio biltzeko metodoa. Galizian ere antzeko proiektu bat garatu da, *As Candongas do Quirombo* deiturikoa. Kolektibo honen helburua Galiziako audiobisualak genero perspektiba batetik, kolektiboki eta era kooperatibo batean handitzea izan da, beti ere emakumeen ahots ezberdinetan oinarrituta.²⁸ Beste proiektu bat, Valentziako udalerrian, Les Alqueriesen aurki daiteke. Bertako udalak ahozko memoria oralaren museoa gauzatu du. Datuak, dokumentuak, argazkiak, baita elkarrizketak ere gordetzen dituzte bertako herritarren egunerokotasuna eta bizitzak jasotzeko eta erakusteko. Artxibo edo museo digital honek, era kolektibo batean, identitate lokalaren eraketan egiten du lan.²⁹

²⁴ PONTES GIMÉNEZ, M.V.: “La musealización del patrimonio cultural inmaterial” Universidad de Granada. Tesis Doctorales. 2017 34. orr

²⁵ Ahotsak.eus: <https://ahotsak.eus/info/> (2019ko azaroaren 15ean kontsultatua)

²⁶ Berria 2018ko azaroaren 27 argitaratutako artikulua: <https://www.berria.eus/paperekoa/1924/046/001/2018-11-27/ahotsak-mintzo-direnean.htm> (2019ko azaroaren 15ean kontsultatua)

²⁷ Island Voices: <https://islandvoices.ca/> (2019ko azaroaren 15ean kontsultatuta)

²⁸ As candongas do quirombo: <https://ascandongasdoquirombo.wordpress.com/quen-somos/> (2019ko azaroaren 15ean kontsultatua)

²⁹ Museu de memòria oral. Les Alqueries: <http://www.lesalqueriespedia.com/tot-arxiu/museu-de-memoria-oral> (2019ko azaroaren 15ean kontsultatua)

Espainiako estatuan zein nazioartean sortu izan diren erreferenteak alde batera utziz, zein da benetan euskal ahozko ondarean *ahotsak.eusek* egiten duen lana? Zeintzuk dira proiektuaren nondik norakoak?

Proiektuaren oinarria 2002- 2003. urtean gauzatu bazen ere, 2008ko apirilaren 16a arte ez zen webgunea aurkeztua izan. Tarteko urteak materiala biltzen eta lantzen igaro dituzte. Oraindik ere eguneratze lanean dihardute, ez da proiektu itxia eta, denborarekin azpiatalak gehitzen joan dira, hala nola Gerrako ahotsak, gerra zibilaren eta frankismoaren inguruko testigantzak biltzen dituena. Proiektua publikoa eta doakoa da, eta metodologia zehatz batez lantzen da. Alde batetik, jada eginda zeuden grabazioak berreskuratu egin dira, asko eta asko zinta analogikotik euskarri digitalera aldatu ostean. Berreskurapenaz gain, grabaketa berriak ere egin dira. Behin grabaketak eduki ostean, elkarrizketaren inguruko informazioa sartzen da datu basean. Zinta guztiak katalogatzen dira eta elkarrizketatuen zein elkarrizketaren datuak jasotzen dira. Grabazioak gaika zein eskualdeka sailkatzen dira.³⁰

Informazio guzti hori artxibategi online batean edukitzearen bi onura aipatu nahi ditut. Alde batetik, bildutako informazioaren hautapen bat baino ez zaio erakusten gizarteari, beraz, informazioaren bilaketa errazagoa suertatu daiteke. Eta bestetik, online dagoen proiektu bat izanik, edonork, klik batean, bere etxetik kontsultatu dezakeen informazioa da. Gizarteratze prozesuan erosotasun eta azkartasun horrek ikaragarritzko abantailak ekar ditzake ahozko ondare mota horren hedapenerako.

Ahozko ondareaz gain, azpimarragarria den beste ondare ukiezin mota garrantzitsu bat soinua da. Soinuak ere badu gure identitatea eratzerako unean zer esan handia. Euskal Herriko soinu ezberdinen lanketa ardatz izan duen proiektua, jarraian azalduko dudana *SOINU MAPA* proiektua da.


*SOINU MAPA*k gure inguruetan ematen diren inguruko soinen grabaketak ditu oinarri. Grabaketa horiek erakutsi, kontsultatu eta elkar trukatu nahi ditu egitasmo horrek, doakoa, publikoa eta librea den artxibo edo mapa interaktibo baten moduan. Grabaketa

³⁰ Ahotsak.eus: <https://ahotsak.eus/info/> (2019ko azaroaren 15ean kontsultatua)

horiek Euskal Herrian egindakoak dira, tokian tokiko errealitate eta izaera erakusten dute, eta horrela soinu memoria bat eratu da.³¹

Proiektua *Audiolab* egitasmoak jarri zuen abian 2005ean, eta Donostiako Martutene auzoan zegoen Artelekun eduki zuen egoitza. Xabier Erkizia da egitasmoaren sortzailea eta eragilea. Baina proiektu kolektiboa izanik, gaur egun sei pertsonak osatzen dute editore taldea. Horretaz gain, proiektu libre denez, edozein hiritarrek du aukera soinu ezberdinak mapara atxiki ahal izateko, beti ere aurrez erabakitako arau batzuk betetzen badira.³²

Zein da soinuak gure egunerokotasunean betetzen duen papera? Soinuek zein zaratek inguratzen gaituzte, milaka eta milaka dira egunean zehar entzuten ditugunak, batzuk etengabe errepikatzen dira eta beste batzuk noizbehinka baino ez ditugu entzuten. Leku bakoitzari soinuek ematen diote bere ezaugarria, eta ezaugarri hori izaera kultural bati atxikita geratzen da.³³ Inguratzen gaituzten soinuek gure bizitzaren zein memoria kolektiboaren parte dira. Soinuek duten ezaugarri garrantzitsuenetarikoa, efimerotasuna da.



Argazkia 1: SOINU MAPA proiektua, online

Azaldu egiten diren modu berean desagertzen dira baina, hala ere, informazioa ematen digute.

Soinuak dinamikoak dira, unean unekoak. Baina soinuak estuki erlazionaturik daude inguruarekin; soinu zehatz batzuk, testuinguru zehatz batean baino ez dira ematen. Soinuak ez direla berriztagarriak kontuan hartuta, horiek grabatzea eta gizarteratzea soinuaren biziraupena bermatzea da eta espazio berri batean bizitza ematea. Soinuaren bidez espazio edo leku baten deskribapena egitean, eremu geografiko batean identitatearen eraikuntza ere garatzen ari da. Horrela, soinua ondare moduan zein

³¹ Soinu Mapa: <http://www.soinumapa.net/> (2019ko azaroaren 16an kontsultatua)

³² Soinumapa.net. "Euskal Herriko Soinuen Mapa" Audio-lab: https://audio-lab.org/wp-content/uploads/2011/11/SOINUMAPA-dossier2012_eusk.pdf (2019ko azaroaren 16an kontsultatuta) 3. orr.

³³ LUIS CARLES, J.: "Mapak eta soinuaren irudikapenak. Ekarpenak eta bilakaera". *Zehar*, 67. zbk, 2010, 94-107 orr.

dokumentu historiko moduan gauzatzen da.³⁴ Hori da soinu maparen proiektuan ikus daitekeena.

Hasiera batean soinu ezberdinak erregistratzen hasi zirenean, artxibo bat sortzea baino, musika konposatzea zen Xabier Erkizia eta bere lan-taldearen helburua. Lanketa hori eremu pribatuan geratuko zela ikusirik, denen eskura egongo zen izaera publikoko eta libreko artxibo bat sortzea erabaki zuten. Proiektu honen gauzapenerako *SoundTransit* izeneko webgune holandar bat hartu zuten oinarritzat, baita Luz Maria San Gil mexikarrak Artelekun 2001. urtean gauzatu zuen *Banco de Sonidos* proiektua ere.³⁵ Azken honek, Euskal Herritik barrena ibilbide ezberdinak burutu zituen hilabetez, eta bertan ausaz soinuak grabatzen joan zen.³⁶ Ediziorik gabeko aukeraketa bat egin zuen, eta horrela gerora antzeko proiektu bat gauzatzeko bidea irekita utzi zuen, horren erreleboa Xabier Erkiziak hartu zuelarik.

Proiektuaren asmo nagusia memoria kolektiboaren berregitea eta horren partekatzea da. Soinuzko memoriaren inguruko hausnarketarako bidea da mapa interaktibo hori. ARGIAko artikuluan Erkiziak adierazi bezala, oso beharrezkoa kontsideratzen du artxibo akustiko propioa edukitzea, gure iragana, oraina eta geroa ezagutzeko tresna eraginkorra baita.³⁷

2.2. ARTELANAK

Ondare immateriala adierazteko beste modu bat, hau posible den neurrian materializatzea izan daiteke. Materializatze prozesu horretan maiz eskatu zaie artistei kolaborazioa eta hauek gehien erabili izan duten baliabidea ikus-entzunezkoak izan dira. Ikus-entzunezkoek, euskarri moduan, ondare materiagabearen lekukotza eta gizarteratzea ahalbideratzen dute.

³⁴ Ibid. 2. orr.

³⁵ Ibid.

³⁶ “Banco sonoro del País Vasco” Arteleku: <http://old.arteleku.net/arteleku/publicaciones/producciones/luz-maria-sanchez/banco-sonoro-del-pais-vasco> (2019ko azaroaren 16an kontsultatua)

³⁷ Argia op. cit.

Atal honetan, Euskal Herriko ondare immaterialaren parte den pilota jokia hautatu dut, artista ezberdinek gai hori, era material batean, nola landu duten azaltzeko asmoz. Artistek, nor bere modura, ikus-entzunezkoen bidez, pilota jokoaren alderdi materiala adierazteaz gain, haren inguruan ematen den giroa, hizkera, hotsak..., hau da, alderdi ukiezina, ikus arazten dute.

Euskal kulturaren, pilotak eta baita frontoiak ere, izugarritzko garrantzia izan dute. Pilotaren jokia mendeetan zehar euskal kulturaren iruditegian oso errotuta egon den kirola izan da.

Pilotariak zein frontoiak dira jokorako elementurik esanguratsuenak. Pilotariak pertsonaia enblematikoak izan dira gure herrietan, gure plazetan eta herriaren memoria kolektiboan.³⁸ Bestetik, frontoiak gizartearen kohesio sozial moduan ulertuak izan dira.³⁹ Baina aipatzekoa da emakumeak kohesio horretatik kanpo geratzen zirela⁴⁰, hau da frontoietatik kanpo, eta beraz bizitza publikoaren protagonismotik kanpo.

Modalitate ezberdinak garatu dira pilotaren inguruan, eta Euskal Herrian ez ezik, munduko beste hainbat lekutan ere praktikatzen den kirola da. Jokorako zenbait elementu material behar badira ere, hala nola, eskua –edo harramintak, pala, saskia, etab.–, pilota eta plaza edo frontoia, jokia bere horretan immateriala da. Immaterialtasun hori ez da bakarrik jokoa ematen, kirol horren inguruan sortu diren gizarte-harremanak, apostuen kultura, hizkuntza teknikoak etab. horiek denak ukiezinak dira eta pilotan ezinbestekoak bilakatu dira. Baina, hala ere, erakusketa ezberdinetan gai hau jorratzerako unean, jokoaren alderdi materiala baino ez da erakutsi. Pilotak, saskiak, etab. erakutsi ohi dira, Donostiako San Telmo Museoko erakusketa iraunkorrean ikus daitekeen moduan. Baina jokoaren elementu materialak erabiltzea ez da publikoari gai hau erakusteko modu bakarra.

Ikus-entzunezkoetan asko landu den gaia izan da, bai Euskal Herrian bertan, baita nazioartean ere. Esate baterako, Orson Wellesek *Around the World with Orson Welles*:

³⁸GONZÁLEZ ABRISKETA, O: “Pelota vasca: Un ritual, una estética” Bilbao, Muelle de Uribitarte, 2005. 340 orr.

³⁹ Ibid. 349 orr.

⁴⁰ Ibid. 50 orr.

Pays Basque lanean, Euskal Herria, euskaldunak eta euskal nortasuna adierazteko orduan garrantzi handia eman zion pilota jokoari. Bestetik, Jorgen Leth danesa dugu, honek ere, pilotari eskaini zion *Pelota* lana. Baina gurean, zein motatako audiobisualak egin dira gaiaren inguruan?

Alde batetik Nestor Basterretxeak eta Fernando Larruquertek 1964. urtean burutu zuten *Pelotari* film laburra dugu.

Pilotan funtsezkoak diren elementuak topa daitezke: frontoia, eskua eta pilota. Bertan, modalitate ezberdinetako jokaldiak agertzen dira. Aipagarria iruditzen zait kamerak pilotari jarraitu beharrean, frontoiko paretari arreta eman beharrean, bizkarra ematen diola, eta pilotarien keinuak eta mugimenduak jasotzen dituela. Mugimendu eta keinu horiek dira filmaren gai nagusiak.

Filman entzuten diren soinuak ere aipagarriak dira. Zenbait momentutan euskal abesti tradizionalen erreperatorioko kantu tipikoak agertzen dira, txistuaren eta danbolinaren laguntzaz. Baina beste zenbaitetan, musika desagertu eta frontoi batean entzuten den giroa jasotzen du filmak. Frontoiaaren inguruan sortzen den giro immaterial horren adierazle baliagarria da lan hau.

Azkenik, frontoiek hartzen dute protagonismoa. Herri ezberdinetako frontoi ezberdinak agertzen dira. Batzuk pareta soilak dira eta beste batzuk konplexuagoak. Horrela, frontoien ugaritasuna adierazten dute egileek. Baina Basterretxeak eta Larruquertek ikustera eman nahi duten Euskal Herri horretan emakumerik ez da ageri. Are gutxiago emakume pilotaririk.

2015ean, Daniel Burguik eta Andrés Salaberriak *Las pelotaris* lana burutu zuten. Pilotaren izaera immateriala adieraztea baino, pilota jokoan emakumeek parte hartu izan dutela erakutsi nahi izan dute egileek. Horretarako, mundu osoko pilotari emakumezkoen testigantzak jasotzen dira. Beraz, dokumental honen helburua emakume kirolari haiei ikusgarritasuna ematea da.⁴¹

⁴¹ "Las pelotaris": <http://laspelotaris.com/> (2020ko urtarrilaren 10ean kontsultatua)

Baina honako hau ez da pilota eta emakumeak lantzen dituen adibide bakarra. Sra. Polarosika talde izena duten sortzaileek ere gai hau lantzeko aukera izan zuten, bitan gainera. Sra. Polarosika bikoteari pilotaren inguruko dokumental bat egin zezaten enkargatu zieten. Hori egiten ari ziren bitartean, emakumeen ikusgarritasun urriaz konturatu ziren eta hutsune hori betetzeko asmoarekin, ikus-entzunezko berri bat gauzatu zuten.⁴²

Pilotaren mundua soilik gizonezkoen mundu gisa eratua izan da. Emakumezkoen partaidetza urria izan da, eta haien ikusgarritasuna urriagoa oraindik. Horren ondorioz, gizarteak emakumezko erreferente eskasak ditu pilotan. Baina pilota ere bada emakumezkoen mundua, eta hori



Argazkia 2: *Pilota Girls* ikus-entzunezkoaren eszena

demonstratze aldera, Sra. Polarosikak *Pilota*

Girls lana gauzatu zuen. Pilotaren jokoaren ideia plazaratuko du ikus-entzunezko honek. Lehengo adibidearekin alderatuz gero, badu berezitasun nabari bat, kasu honetan emakumezko pilotaria izango da protagonista, zehazki Patri Espinar pilotaria. Hau Bilbo hirian barrena agertuko zaigu, pilotan.

Eskuz jokatzeko moduko pilota sakelatik atera eta jokoan hasten da, frontoiaren kontestutik kanpo, hiriko pareta ezberdinen kontra joaz pilota. Hirian barrena mugitzen da, korrika batzuetan eta oinez edo saltoka, besteetan. Mugimendu horiek grabatzeko, kamera batek etengabe jarraitzen dio pilotariari. Hiriko elementuei aurre egiten die, autoen gainean jarri eta pilotan jokatzeko du, iragarkidun pareten kontra egiten du pilotan, zein kristalezko erakusleihoen kontra, hura hausteraino. Gorri koloredun kamiseta du soinean, pilotan maiz erabiltzen den kolorea. Musika ere ez da Basterretxeak eta Larrouquek erabili zuten berdina, euskal musikariek ez du sartzen, eta tradizio horrekin apurtu egiten du. Publikoa ez da frontoieko harmailetan topa

⁴² ELORZA IBÁÑEZ DE GAUNA, C.: La acción como interrogación en el seno de lo cotidiano. Un diálogo con Sra. Polarosika en sillón de Taller. *Revista Mnemosine. Arte y Humanidades.2 Zbk.,2013* 11.orr <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/18894/polarosikaiC-ELORZA-2-2.pdf?sequence=1&isAllowed=y> (2019ko azaroaren 16an kontsultatua)

daitekeena. Publikoa hirian barrena pasieran doa eta pilotariarekin topo egiten du kalean. Hala ere, pilotariak publikoaren erantzuna jasotzen du, beraz publikoaren eta jokalariairean artean bada lotura, pilota itzultzen diotenean edota bostekoa ematen diotenean, baita ere.

Elkarrizketa batean ondo azaltzen duten bezala⁴³, txikitan neskatilak pilotan ikusten dira baina gero zer pasatzen da beraiekin? Zinemaren zein bideokliparen lengoaiaz baliatuz, pilotaren inguruan sortu izan diren estereotipoak zalantzan jarriko dituzte eta emakumeek mundu horretan izan duten ikusgarritasun urria salatuko dute.⁴⁴

Adibide honek argi azaltzen du pilotaren ondarea gizonezkoek eta gizonezkoentzako eratua izan dela eta emakumeak mundu horretatik at utziak izan direla. Horregatik, Sra. Polaroiskak, ikuspegi hori zalantzan jarri eta ikuspuntu berria plazaratzen du: Pilota ere bada emakumezkoena.

Beste adibide bat, atal honetako azkena, aipatuko dut hurrengo lerroetan. Adibide horrek, pilotaren alderdi immaterialenetako bat emango da aditzera: mugimendua. Mugimendu hori, LASALA konpainiak, *Lauesku* eta *Lauesku 22* performancetan, dantzarekin lotzen du. Ikus-entzunezko horretan jokoa gauzatu ahal izateko egin behar diren mugimenduen eta dantzaren arteko erlazio estua azpimarratzen da.

Lauesku eta *Lauesku 22* performaceak 2013. urtean Judith Argomanizek eraikitako LASALA konpainiak sortu zituen. Obra hauetan, gizarteak jada onartuak eta naturaltasun osoz barneratuak dituen neurriak, arauak, ohiturak eta legeak zalantzan jartzen ditu, irtenbide eta bide berriak eraikitzen ditu.⁴⁵

Laueskun^{46 47} hiru dantzari agertzen dira, frontoi batean. Pilotan egiten dute, pilotarik gabe. Pilotan egiten dute, lehiarik gabe. Pilotaren jokoa aditzera ematen dute,

⁴³ Ibid. 11.orr

⁴⁴ Pilota Girls. Sra. Polaroiska: <http://cargocollective.com/srapolaroiska/PILOTA-Girls-2012> (2019ko abenduaren 2an kontsultatua)

⁴⁵ Lauesku, Kulturklik: <https://www.kulturklik.euskadi.eus/sorkuntzak/20160120121247/lauesku-kulturklik/eu/z12-detalle/eu/> (2020ko urtarrilaren 15ean kontsultatua)

⁴⁶ Lauesku, LASALA: <http://www.lasala-lasala.com/lauesku-ca> (2019ko abenduaren 2an kontsultatua)

⁴⁷ Lasalak konpainiak ere Lauesku performancearen antzekoa den, bertsioa den Lauesku 22 du. Estela honetan eskuragarri: <http://www.lasala-lasala.com/lauesku22-ca> (2019ko abenduaren 2an kontsultatua)

horretarako pilotarien keinuak eta mugimenduak erabiltzen dituzte. Pilota partida bat errepresentatzen dute, beraien modura, hau da, dantzan. Mugimendu horiek laguntzeko momentu batzuetan Vivaldiren lau urtaroaren bertsio bat entzuten da, beste batzuetan aldiz, pilota joko batean ohikoak diren hotsak aditu daitezke. Hiru jokalar/ dantzariak elkarri begiratzen dutenean amaitzen da jokia/ dantza.

Lan koreografiko honek zein eratan ematen du pilotaren alderdi immateriala aditzera? LASALA konpainia pilota-jokoaren alderdi ukiezinaz hitz egiteko, dantzaz baliatuko da, baliabide ukiezin batez, alegia. Biak immaterialak izateaz gain, badituzte beste amankomuneko ezaugarri batzuk. Biak gorputzaz baliatzen dira koreografia bat sortzeko. Dantzaren kasuan koreografia hau era kontzienteago batean burutuko da. Pilotaren kasuan, aldiz, era inkontzienteagoan egingo da aipatutako koreografia

Ikus-entzunezko adibide hauen bitartez adierazi nahi izan dudana da ondare beraren inguruan zein ikuspuntu desberdin sortu daitezkeen. Basterretxeak eta Larruquetek pilotaren “betiko” ikuspuntua ematen du aditzera. Sra. Polaroiskak, aldiz, pilotaren inguruan orain arte egin den eraketa hori zalantzan jarriko du eta pilota emakumezkoen ondare dela azpimarratuko du. LASALA konpainiak pilotan egiten diren mugimenduei jarriko die arreta eta hauek, dantzaren bitartez adieraziko dituzte. *Pelotari* filmean eta *Lauesku* performancean agertzen diren mugimenduak estuki harremanetan badaude ere, mugimendu hori adierazteko erak ezberdinak dira. Adibide guztiak pilotaren inguruan hitz egiteko ikus-entzunezkoen baliatzen badira ere, modu zeharo ezberdinetan egiten dute, sortze prozesuan parte hartzen duten artisten zein kolektiboen arabera, bai eta norberak ondare zehatz horren inguruan duen ikuspuntuaren arabera ere.

2.3. ERAKUSKETAK

Euskal Herriko ondare immateriala erakusketa bidez ere erakutsi izan da. Immaterialtasun hori erakusketan islatzeko unean saiakera ezberdinak egin izan dira. Eta baliabide ezberdinak erabili dituztenez, oso emaitza ezberdinak atera dira. Zeregin honetan ibili dira hainbat museo.

Euskal Museoak adibidez, bertsolaritzaren gaia landu zuen 2005eko abenduaren 7tik abenduaren 20a bitarte ikusgarri egon zen “*Hitzak egin gaitu ezer, mundua bete bertso*”

erakusketan. Bertsoerik gabeko Euskal Herria hartu zuten hipotesizat eta bertatik bertsoerik paper soziala zein bertsoaren bitartez hitzak gure memorian finkatzeko papera azpimarratu nahi izan dute. Horretarako, baliabide ezberdinak erabili dituzte. Panelak nagusitu ziren, bertsoerikaren inguruko zenbait ideia plazaratzeko. Bestetik, joko interaktiboak ere txertatu zituzten, bertan hainbat jokoetan jolasteko aukera egon zen eta bestetik ere filme bat proiektatu zuten. Elementu material ezberdinek ere eduki zuten bere lekua erakusketan, hala nola, manikiek, aukiek, mikrofonoek, ispiluek edo oholtzak...⁴⁸

Beste adibide bat Donostiako San Telmo Museoak euskarari buruz ekoitzi zuen *Badu Bada (euskara mundu eleanitzean)* erakusketa da. Euskal Herriko Gizarte Museoa izateko xedea duen San Telmo Museoak, euskara hartu zuen ekoitzi nahi zuen erakusketarako gaitzat. Euskara gai gisa hartzearen hautua egin zuten, hau gure ondare bizi nagusia delako, gure herriaren ondare materiagabe bereziena delako eta gizarte kohesiorako eragin handia duelako. Erakusketa Donostiako San Telmo Museoan 2012ko azarotik 2013ko otsaila bitartean eon zen ikusgarri⁴⁹.



Argazkia 3: *Badu Bada* erakusketa

Joxean Muñoz izan zen erakusketaren diseinugile eta komisarioa, eta proiektuaren garapenerako Harkaitz Cano izan zuen lankide. San Telmo Museoak enkargua egin zien, eta erronka bota zien: nola egin euskarari buruzko erakusketa bat? Nondik heldu gaiari, eta nola? Erakusketaren inguruko nondik norakoak sakonago aztertzeko, Joxean Muñoz azaroaren

23an egindako elkarrizketaz baliatuko naiz.

Muñozek argitu bezala, hasiera batean gaia zentratu behar izan zuten: plazaratuko zituzten ideiak zein helburuak zeintzuk izango ziren zehaztu behar zituzten, alegia. Euskararen bizirautea proposatu zuen erakusketaren ardatz nagusi bezala, zer behar duen hizkuntza batek bizirik iraungo badu eta zer izan behar duen hizkuntza batek,

⁴⁸ Ibid.

⁴⁹ *Badu, Bada. Euskara mundu eleanitzean*. Erakusketaren katalogoa. Donostia, San Telmo Museoa, Etxepare Institutua, 2012. 5.orr

biziko bada. Horretarako Koldo Mitxelenak esandako esaldia hartu zuten muintzat; “*Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria*”. Euskararen gaia etorkizunari begira jarri zuten, eta ez iraganari. Hartu beharrekoa hurrengo erabakia erakusketaren moldearen ingurukoa izan zen. Gaia immateriala dela kontuan hartuta, erakusketa antolatzeke modu ezberdinak zeuden. Alde batetik hizkuntzaz hitz egin zitekeen dokumentuen bidez eta dokumentu horien balioaz baliatu erakusketa gorpuzteko. Baina komisarioek hasieratik uko egin zioten erakusketa dokumentu edo objektu esanguratsu eta baliotsuetan oinarritzeari. Erakusketarako objektuak bilatu, ikertu, aukeratu eta ordenatu beharrean, objektuak sortzea erabaki zuten, erakusketan planteatu nahi ziren ideiak gauzatzeko. Beraz, elementu materialetan oinarrituko zen erakusketa bat izatea baino, datuak zein ideiak proposatzeko erakusketa gisa ulertu zuten.

Erakusketak komunitate zehatz baten ondare immaterialean, hau da hizkuntzan, oinarritutako diskurtso bat plazaratzen zuen. Baina nola eraiki kolektiboa den elementu baten diskurtsoa? Argi zuten erakusketan ahots ezberdinak txertatu nahi zituztela, ez zedin komisario edo talde sortzaile baten diskurtso pertsonala besterik izan.

Alde batetik, ideia eta datu objektiboak adierazterako unean, baliabide grafiko ezberdinez baliatu ziren. Europako eleaniztasuna adierazteko adibidez, koloretako borobil ezberdinak jarri zituzten eta hauek zuten tamainaren arabera hiztun kopurua adierazi nahi zen. Horrela, ikus zitekeen euskarak okupatzen zuen leku erlatiboa zein zen. Beste adibide bat datuen emaitzak emateko modua da. *Euskararen herria* atalean adibidez, datu estatistikoak era erakargarri batean emateko, folioak erabili zituzten. Folio multzo ezberdinek, erdaldunak, euskara jakin eta erabiltzen ez dutenak eta euskaldunak sailkatzen zituzten.

Erakusketan zehar ahots ezberdinek lekua hartu zuten eta hori horrela egiteko erabili zituzten bi baliabide dira azpimarratzeko. Alde batetik, erakusketa osoan zehar *Post-itak* sakabanatuta zeuden. Bertan, Euskal Herriko panorama kulturalaren jakitun ziren pertsonen erakusketaren harira bat zetozen gaien inguruan iritzi propioa eman zezaten eskatu zitzaaien. Bai erakusketen ideiekin bat zetozen ideiak zein kontrajarri egiten zirena ideiak azal zitzaaten. Beste baliabide bat bisita komentatuak izan ziren. San Telmo museoak eskaintzen dituen bisita gidatuez gain, euskal kulturaren erreferentziazko diren pertsonen bisitak egin zituzten erakusketan zehar, norberak bere iritzia ematez eta

bere intereseko ziren gaietara besteei baino arreta handiagoa eskainiz. Bi baliabide hauekin posible izan zen komisarioek erabakitako erakusketaren bizkar hezurraz gain beste nolabaiteko begiradak txertatzea.

Baina erakusketa ideia islatzeko gune izateaz gain, nahi zuten bertan ere gauzak gerta zitezkeen. Erakusketa agertoki edo gertaleku gisa ulertu zuten. Horretarako, bertan, hitzaldiak zein euskarako klaseak antolatu zituzten. Bestetik, *Gozatu eta jolastu* gunean aulkiak zein mahaiak zeuden. Honekin gune horretan bisitariak bertan eseri eta euren artean hizketa egiteko lekua sortu nahi izan zuten. Euskararekin izandako bizipenak, esperientziak zein anekdotak elkarbanatu zituzten.

Erakusketa 10 gune ezberdinek osatzen zuten. Ideia bakoitza gune batean eta estetikoki era ezberdin batean garatu zuten, ikusleak bisualki garbi ikus zezan noiz aldatzen ari zen bai salaz eta baita ideiaz ere. Hauek ziren landu zituzten gune ezberdinak: (A)hotsak; Kodeak; Hizkuntza bizia; Euskara mundu eleanitzean; Euskararen iraupena; Euskararen herria; Erabili, maitatu, ikasi, irakatsi; Gozatu, jolastu; Hizkuntzen elkarbizitza eta Agurra(k).

Oso harrera ona eduki zuen erakusketa izan zen. *Hik hasin* argitaratutako artikulua batean esan bezala, “izaera aldakorreko erakusketa izan zen, bisitarien ekarpenek zein egunez eguneroko gertaerek aberastuko dutena”⁵⁰, “bisitari bakoitzak euskarari norbere kolorea emateko” aukera egon zen bertan.⁵¹

Bi adibide hauekin, ondare immaterial ezberdinen inguruan egin diren erakusketa adibideak ekarri nahi izan ditut lanera. Erakusketak ere izan baitira baliabide azpimarragarri ondare mota hau herritarren zein hiritarregana iritsi dadin.

3. ONDARE IMMATERIALAREN ERAKUSKETARATZE ETA MUSEOGRAFIZATZE JOERAK

⁵⁰ Hik Hasi aldizkarian, 2014ko martxoaren 1an argitaratutako artikulua: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20140301/euskararen-iraupenaren-misterioa> (2019ko abenduaren 16an kontsultatua)

⁵¹ Ibid.

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, materiagabeko ondareak badu bere lekua museoetan. Dagokion lekua definitzeko saiakera ezberdinak egin izan dira denboran zehar. Ondare materialaren musealizazioa oso orokortuta badago ere, ez da gauza bera gertatzen ondare materiagabeari dagokionean. Zenbait saiakera egin badira ere, oraindik ez da ondare immaterialaren musealizazioaz marko teoriko sendorik gauzatu. Ikertzeke dagoen gaia da. Hala ere, esan beharra dago ez dela orain gutxi sortu den zalantza eta jada museografiaren joera batzuk elementu materiagabeen jarri zutela fokua, batez ere museologia berriaren lanketarekin batera.⁵²

Baina zertaz hitz egiten da musealizazioaz ari garenean? Musealizazioak, definizioz, esan nahi du zerbait berezkoa duen jatorritik eta ingurutik fisikoki eta kontzeptualki ateratzea, eta estatus museal bat ematea. Hau da: zera hori, museoko objektu bihurtu eta museoaren eremuan sartzea.⁵³ Orokorrean, ondarea materiaduna denean, musealizatzea ulertzeko modu hori ez da zalantzan jarri, museoek oraindik ere objektuaren inguruan lan egiten baitute. Baina gizartean kezka berriak sortu diren heinean, instituzio museistikoetan ere paradigma berriak landu behar izan dira. Museoa ondare immaterialaz arduratzeak ekarri du horietako aldaketa sakon bat. Materialtasunaz kanpo geratzen den horretan jarri behar izan dute fokua museoek.⁵⁴

Materialtasuna eta immaterialtasuna ezin dira guztiz bereizi. Materialtasunak ere asko du immaterialtasunetik. Objektu batek bere materialtasunaz gain, badu esanahi bat, kontestu bat, balore bat, eta hori guztia materiagabea da.⁵⁵ Beraz, objektu baten immaterialtasuna deuseztatzeak esan nahi du objektu horren esanahi orokorrari uko egitea. Orain arte materialtasuna ardatz gisa hartu bada ere, haren balorea, neurri oso handi batean, immaterialtasunetik baino ezin izango da interpretatu.⁵⁶ Ukigarri eta ukiezinarean arteko harremana ematen da, elkar elikatzen dute.

⁵² DÍAZ BALERDI, I.: "Museografía del patrimonio intangible", *Revista de museografía*, 75. Zbk., 2019, 43.orr

⁵³ DESVALLÉES, A. eta MAIRESSE, F. (Zuz.): *Conceptos claves de museología*, Paris, Armand Colin, 2010. 50. orr https://icom.museum/wp-content/uploads/2018/07/Museologie_Espagnol_BD.pdf

⁵⁴ PONTES GIMÉNEZ, M.V.: "La musealización..." op. cit. 38. orr.

⁵⁵ DESVALLÉES, A.: *Provocative Paper: Museology and categories of Intangible Heritage- Issues of terminology: the relevance of "patrimoine immatériel" and "patrimoine intangible" in French, and "intangible heritage" in English.*, ICOFOM Study Series, 2004 cit in. DÍAZ BALERDI, I.: "Museografía..." op. cit. 39.orr

⁵⁶ DECAROLIS, N.: "The tangible and Intangible Heritage", *Museology and the Intangible Heritage*. ICOFOM Studies Series ISS 32 cit in. DÍAZ BALERDI, I.: "Museografía..." op. cit. 41.orr

Idea hau kontuan hartuta, Giovanni Pinnak ondare immaterialaren sailkapen bat eta ondare mota hori museoratzeko erak proposatzen ditu. Hiru multzotan egiten du sailkapena.⁵⁷ Lehenengoan, era ukigarrian adierazi daitezkeen tradiziozko bizitza edo kulturaren adierazpenak biltzen ditu. Hauek arazo handirik gabe aurkeztu ahal izan ditu ohiko museografiak, batez ere museo etnografikoetan. Izan ere, ondare immateriala adierazteko baliatzen dira objektuez, irudiez, soinuez, edo-ta bere kontestua berreraikiz. Bigarren multzoan, ondarea den objektu baten inguruan sortzen diren esanahi simboliko zein metaforikoak sartzen dira. Horiek objektua osatu egiten dute, zentzua ematen diote. Tankera honetako ondarea, baita ere, era tradizionalan musealizatuko litzake, hau da, objektuan ardaztutako museografiaz.

Eta azkeneko taldea da lan honetarako interesatzen zaiguna. Multzo horretan, giza talde baten espresio indibidual zein kolektibo ukiezinak sartzen dira, hala nola, memoria eta tradizio oralak, besteak beste. Eta multzo honek sortu ditu museografiaren alorrean paradigma berrienak, eta planteatu ditu zailtasunik gehienak. Zailtasunak datoz ondare mota hau ez dagoelako objektu bati atxikita eta, beraz, ezin delako objektu baten bitartez adierazi, horrek dakartzan zailtasun metodologikoekin.⁵⁸ Orain arte fokua objektuan ezarri bada, fokua ikuspuntua aldatzea proposatzen du sailkapena egin duen egileak: objektutik subjektura pasatzearen garrantzia.

1970ko hamarkadaren inguruan sortu zen Museografia Berria, besteak beste, museoan bildutako objektuak jatorrizko testuinguruaren lekukotasunez aberasten saiatu zen, eta ahalegin handia egin zuen museoetan elementu immaterialak txertatzeko. Gainera, eguneroko bizitzari eta herritar soilei lotutako objektuei garrantzia eman zien, museoaren elitismoaren aurkako mugimendua izan bait zen, funtsean.

Zer gertatzen da ordea, objektu hori desagertu eta fokua immaterialtasunean jartzen denean? Museoaren eginkizunak iraultza sakona ezagutuko du, eta museoa ulertzeko modu berriek museologia berriak ekarriko ditu, ordurartekoak irauliko dituztenak.

⁵⁷ PINNA, G.: "Intangible Heritage and Museum", ICOM news, 56 (4),2003, 3 orr. Cit in DÍAZ BALERDI, I.: "Museografia..." op. cit. 42.orr

⁵⁸ KURIN, R.: "Los museos y el patrimonio inmaterial: ¿cultura viva o muerta?", Noticias del ICOM, 4 Zbk., 2004, 7-9orr. cit in. DÍAZ BALERDI, I.: "Museografia..." op. cit.. 42.orr.

Horretan saiatzen da, adibidez, autore batzuk “neomusealizazioa” deitu izan diotena, museo eta erakusketetan ondare ukiezina hatzemateko bide berriak proposatzen dituenak.⁵⁹ Museologia berri honek ikuslearen esperientzia du helburu, esperientzia konplexuak eragin nahi ditu, ikuslearengan.⁶⁰

Objektuak erakuste hutsetik harago joan nahi du museografia era berri horrek. Eta ikuslearen parte hartzea bilatu nahi da, gainera. Ikusleak, museora edo erakusketara etorritako jendarteak garrantzi berezia hartzen du jokoan ondare materiagabea dagoenean. Ondare materiagabearen definizioan bertan, hura bizi duen eta hura gorde duen gizataldea funtsezkoa da⁶¹. Horren ondorioz, erakusketetan eta museoetan ere jendeak –kasu honetan ikusleak, bisitariak– protagonismo handiagoa hartzen dute edo hartu beharko lukete. Museoaren eta erakusketen diskurtsoa beste modu batera antolatu beharra dakar ikusleari garrantzi berezia emateak.

Hori horrela egingo balitz, planteamendu berriak sortuko lirateke ondarearen eta kolektibo sozialaren artean. Beraz, ondare ukiezinaren inguruko diskurtsoa eratzea ez litzake hutsik museoeko profesionalen eskuetan egongo, baizik eta lan kolektiboagoa izango litzake, beti ere lehengo profesionaltasuna kontuan edukiz.⁶²

Aipatu beharrekoa da, gizarte baten ondare ez materialak erakusteko oso ohikoa izan dela indigenen bizi-estiloak agertzen dituzten museoak eredutzat hartzea, haiek izan baitira ondare materiadun zein materiagabea erakusgai jartzeko tradizio museologikoaren aitzindariak.⁶³ *Appropriate museology*k bultzatzen du indigenen tradizio museologikoak erabiltzea, beti ere aproposak direnean. Museologia mota honek testuinguru kulturalak zein kondizio sozioekonomikoak hartzen ditu kontuan, fokua gizarte talde horren ezagutzan eta bere baliabideetan jarritz.⁶⁴ Baina, askotan, indigenen bizi-estiloak erakutsi direnean, *indigenous curation* bezalako praktiken bidez, mendebaldeko ikuspuntu batetik egin izan da, gure begirada, interpretazio zein

⁵⁹ GARCÍA FERNÁNDEZ, I.: “Nueva museografía”, *Revista de museografía*, 75 Zbk., 2019, 33. orr

⁶⁰ Ibid. 30.orr

⁶¹ Kultur Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioa, 2.artikulua

⁶² MAGGI, M.: *El perfil cultural de la sostenibilidad: el papel de la nueva museología*. Ponencia presentada al XI Taller Internacional de Nueva Museología, Molinos, Teruel, 2005 cit in. DÍAZ BALERDI, I.: “Museografía...” op. cit. 42 orr.

⁶³ F. KREPS, C.: “Appropriate museology in theory and practice” *Museum Management and Curatorship*, 1 zbk., 2008, 23-41. Orr (26. orr.)

⁶⁴ Ibid. 23. orr

deskribapenetatik, ideologia kolonial batean eroriz.⁶⁵ Horrela, pertsona indigenen inguruko ideia bat sortu du mendebaldeko gizarteak. Ez dira beraz indigena komunitateak euren ondareaz mintzo direnak. Hori aldatze aldera, indigenek talde instituzionalak eratu dituzte egoerari kritika egiteko eta aldaketa eragiteko.⁶⁶

Laburtzeko, esan ondare immateriala jorratzerako unean, ahots ezberdinen parte hartzea, taldetasuna alegia, dela ezaugarri azpimarragarriena. Ondare hori transmititzen zein eraikitzen doa, eta interesgarriagoa suertatzen da ezagutza horiek komunitate batean eraikitzea, denen artean. Beraz, ondarea eta haren ezagutza, bi-biak bizirik daude.⁶⁷ Ondare immaterialak pertsonengan jartzen du arreta, eta beraz, museoen inguruan sortu ohi diren dinamikak iraultzea eskatzen du, objektuen sakralizazioa alde batera utzi, eta esanahietan zein giza komunitateak ondare horren inguruan adierazi dezakeenean zentratzeko.⁶⁸ Baina oraindik ere, ondare immaterialaren eta museoen arteko erlazioan zalantzak dira nagusi, behin betiko erantzunik ez baita topatu. Orokorrean, orain arte museoek arreta hilik dagoen horri jarri diote, hau da objektuei. Bizirik dagoen ondarea lantzeko unean, berriz, ohikoak izan diren museo-praktikak ez dira baliozkoak.⁶⁹

Beraz, interesgarria izango litzateke museoak, iragana fosilizatzean ez ezik, gaurkotasun handia duten orainaldiko erronkei erantzuten ahaleginduko balira. Horretarako, museoetan ondare materiagabea lantzea aberasgarria izan daiteke, gizarte taldeek euren ondarearen inguruan ahotsa berreskuratzeko gunea bilakatu daitekeelako museoa, eta testuinguru bat emango liokeelako, baita ere.

ONDORIOAK

Ondarea, guztiona eta guztiontzat behar lukeen hori, auzitan jarrita dago. Galdera ezberdinak planteatzen dira gaiaren inguruan eta gaur egun, galdera horiei erantzun posibleak topatzeko saiakeran ari dira. Ustez guztiena dena, norena de benetan?

⁶⁵JAIMIE L.I.: "Decolonizing curatorial practice: acknowledging Indigenous curatorial praxis, mapping its agency, recognizing it's aesthetic within contemporary Canadian art". University of British Columbia. Doktore tesia. 2016. 3. orr <https://open.library.ubc.ca/cIRcle/collections/ubctheses/24/items/1.0303135> (2019ko abenduaren 30ean kontsultatua)

⁶⁶ Ibid. 12.orr.

⁶⁷ DÍAZ BALERDI, I.: "Museografía..." 44. orr.

⁶⁸ PONTES GIMÉNEZ, M.V.: "La musealización..." op. cit. 36.orr

⁶⁹ PONTES GIMÉNEZ, M.V.: "La musealización..." op. cit. 39. orr.

Norentzako da? Galdera hauei erantzun posibleak topatu nahian, kezka sortu da, ikustean zenbait kolektibok ez dutela euren burua ondare orokor horretan islaturik ikusten. Nola egin orduan talde horiei ondare orokortzat ematen den ondarean lekua egiteko, bertan errepresentatuta senti daitezen? Baina benetan existitzen ahal da ondare orokorrik, unibertsalik?

Kezka hauek oraindik ere garbiago ikus daitezke ondare immaterialaz ari garenean. Ondare immaterialak komunitatearen beharra du, hau baita ondare ukiezinaren eroale. Taldekotasunaren garrantzia, beraz, ezinbestekoa izango da.

Hasierako kezkez gain, ondare immaterialak paradigma berriak ekarriko ditu. Ondare mota honen babes eta zaintzaz gain, zein izan daitezke ondare ukiezina gizarteratzeko moduak? Tradizionalki museologiaren alorrean baliagarriak izan diren moldeek ez dute balio, hauek alderdi materialari baino ez baitiote erreparatu. Hau irauli eta ondare immateriala landuko duen museografia berri baterako, oso lagungarri suertatu dira teknologiaren garapena bai eta ikus-entzunezkoen gorakada ere. Hauek, besteak beste, museoetako ateak ireki baitizkiote ondare ukiezinari.

Museoetan ondare immaterialaren gaia geroz eta gehiago lantzen ari den alorra da. Hasierako momentutik, komunitatea ondare horren erdigunean jarri beharri erreparatu diote. Horrela, orain arte eduki dutena baino protagonismo handiagoa izango lukete eta euren ondarearen inguruan esateko dutena gehiago hartuko litzateke kontuan.

Azpimarratzekoa da ondare ukiezinak erantzun zehatzik gabeko hamaika galdera dituela. Oraindik ere, proposamen berrietara irekita dago, lantzeke dago eta elementu asko ditu auzitan jartzeko. Ondare immaterialaren gaiak, beraz, etorkizun hurbil batean landua izateko ateak zabal zabalik ditu.

BIBLIOGRAFIA

Iturriak

- 16/ 1985 legea, Patrimonio Histórico Español, 46. artikulua
- Kultur Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioa, 1. artikulua
- Kultur Ondare Immateriala Babesteko Konbentzioa, 2. artikulua

- 7/1990 legea, Euskal Kultura Ondarearena, V. kapitulua, 51. artikulua
- 7/1990 legea, Euskal Kultura Ondarearena, V. kapitulua, 53. artikulua
- 6/2019 legea, Euskal Kultura Ondarearena. II. titulua, 11. artikulua
- 1978ko Espainiako Konstituzioa, hitzaurrea, 3.3. puntua

Bibliografia

- ÁNGELES QUEROL, M: *Manual de Gestión de patrimonio cultural*. Querol, Ediciones AKAL, 2010.
- *Badu, Bada. Euskara mundu eleanitzean*. Erakusketaren katalogoa. Donostia, San Telmo Museoa, Etxepare Institutua, 2012.
- BALTÀ PORTOLÉS, J.: “El ejemplo francés. Cómo protege Francia la Cultura”. VIII Foro de Industrias Culturales. (Azaroa 2016) Madrid, Fundación Santillana y Fundación alternativas, 2016.
https://www.fundacionalternativas.org/public/storage/recursos_descargas/aaf6581d1ac124fb62b20b8e2c046e85.pdf
- BEAUVOIR, S.: *Bigarren sexua [Bizi izandako esperientzia]*. Donostia, Elkar-Jakin, 2019. 158. orr
- DESVALLÉES, A. eta MAIRESSE, F. (Zuz.): *Conceptos claves de museología*, Paris, Armand Colin, 2010.
- DÍAZ BALERDI, I: "¿Qué fue de la nueva museología? El caso de Québec, *Artigrama*, 17, 2002
- DÍAZ BALERDI, I.: "Museografía del patrimonio intangible", *Revista de museografía*, 75. Zbk., 2019. 34- 44. orr
- ELORZA IBÁÑEZ DE GAUNA, C.: “La acción como interrogación en el seno de lo cotidiano. Un diálogo con Sra. Polarosika en sillón de Taller.” *Revista Mnemosine. Arte y Humanidades.2 Zbk.2013*
- F. KREPS, C.: “Appropriate museology in theory and practice” *Museum Management and Curatorship*, 1 zbk., 2008, 23-41. Orr
- GARCÍA FERNÁNDEZ, I.: “Nueva museografía”, *Revista de museografía*, 75 Zbk., 2019. 21- 33. orr
- GONZÁLEZ ABRISKETA, O: “Pelota vasca: Un ritual, una estética” Bilbao, Muelle de Uribitarte, 2005.

- GONZÁLEZ CAMBEIRO,S.:” La salvaguarda del patrimonio inmaterial en España”. Universidad Complutense de Madrid. Doktore tesia. Madrid, 2015.
- JAIMIE L,I.: “Decolonizing curatorial practice: acknowledging Indigenous curatorial praxis, mapping its agency, recognizing it’s aesthetic within contemporary Canadian art”. University of British Columbia. Doktore tesia. 2016.
- JIMENEZ MADARIAGA, C.: “La musealización del patrimonio etnológico” in CUENCA LÓPEZ, J.M. eta GONZÁLEZ PARRILLA J.M.: *La musealización del Patrimonio*. Huelva, Universidad de Huelva, 2009
- JIMÉNEZ- ESQUINAS, G: “El patrimonio (también) es nuestro. Hacia una crítica patrimonial feminista” in ARRIETA URTIZBEREA, I. (ed): *El género en el patrimonio cultural*. Bilbo, Universidad del País Vasco/ Euskal herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua= Servicio Editorial, 2017
- KIRSHENBLATT- GIMBLETT, B.: *Intangible Heritage*. UNESCO, Frantzia, 2004.
- LUIS CARLES, J.: “Mapak eta soinuaren irudikapenak. Ekarpenak eta bilakaera”. *Zehar*, 67. zbk, 2010, 94-107 orr
- PONTES GIMÉNEZ, M.V.: “La musealización del patrimonio cultural inmaterial” Universidad de Granada. Doktore tesia. 2017.

Albisteak

- Argia aldizkarian 2011ako maiatzaren 22an argitaratutako artikuluen esteka: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2277/soinumapa> (2020ko urtarrilaren 14an kontsultatua)
- Berria 2018ko azaroaren 27 argitaratutako artikuluen esteka: <https://www.berria.eus/paperekoa/1924/046/001/2018-11-27/ahotsak-mintzo-direnean.htm> (2020ko urtarrilaren 14an kontsultatua)
- Hik Hasi aldizkarian 2014ko martxoaren 1ean argitaratutako artikuluen esteka: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20140301/euskararen-iraupenaren-misterioa> (2020ko urtarrilaren 14an kontsultatua)

Webgrafia

- “¿Qué es el patrimonio cultural inmaterial?”. UNESCO: <https://ich.unesco.org/doc/src/01851-ES.pdf> (2019 ko maiatzaren 4ean kontsultatua)
- “Banco Sonoro del País Vasco”. ARTELEKU: <http://old.arteleku.net/arteleku/publicaciones/producciones/luz-maria-sanchez/banco-sonoro-del-pais-vasco> (2019ko azaroaren 16an kontsultatua)
- “El sonido como patrimonio cultural inmaterial”, Equipo Zemos: http://equipo.zemos98.org/IMG/article_PDF/El-sonido-como-patrimonio-cultural_a392.pdf (2019ko azaroaren 16an kontsultatua)
- “El texto de la Convención para la Salvaguardia del Patrimonio Inmaterial”, UNESCO: <https://ich.unesco.org/es/convenci%C3%B3n> (2019ko maiatzaren 3an kontsultatua)
- “Inventarios: identificar para salvaguardar”, UNESCO: <https://ich.unesco.org/es/inventario-del-patrimonio-inmaterial-00080> (2019ko apirilaren 4ean kontsultatua)
- “La filмотeca vasca organiza un ciclo sobre pelota vasca para junio”. Euskadiko filmategia: <http://www.filmotecavasca.com/es/la-filmoteca-vasca-organiza-un-ciclo-sobre-pelota-vasca-para-junio> (2019ko abenduaren 2an kontsultatua)
- “Las pelotaris”: <http://laspelotaris.com/> (2020eko urtarrilaren 10ean kontsultatua)
- “Lauesku”. Kulturklik: <https://www.kulturklik.euskadi.eus/sorkuntzak/20160120121247/lauesku-/kulturklik/eu/z12-detalle/eu/> (2020eko urtarrilaren 10ean kontsultatua)
- “Soinumapa. net. Euskal Herriko Soinuen Mapa” Audio-lab: https://audio-lab.org/wp-content/uploads/2011/11/SOINUMAPA-dossier2012_eusk.pdf (2019ko azaroaren 16an kontsultatua)
- Ahotsak.eus: <https://ahotsak.eus/info/> (2019ko azaroaren 15ean kontsultatua)
- As Candongas do quirombo: <https://ascandongasdoquirombo.wordpress.com/quen-somos/> (2019ko azaroaren 15ean kontsultatua)
- Association of Critical Heritage Studies: <https://www.criticalheritagestudies.org/> (2020ko urtarrilaren 8an kontsultatua)

- Hitzak egin gaitu ezer. “Mundua bete bertso”, Euskal Museoa: <https://www.euskal-museoa.eus/eu/erakusketak/xehetasunak/45/hitzak-egin-gaitu-ezer-mundua-bete-bertso> (2019ko abenduaren 16an kontsultatua)
- Island Voices: <https://islandvoices.ca/> (2019ko azaroaren 15ean kontsultatua)
- Lauesku, LASALA: <http://www.lasala-lasala.com/lauesku-ca> (2019ko abenduaren 2an kontsultatua)
- Musée du fier monde: <https://ecomusee.qc.ca/en/> (2019ko abenduaren 29an kontsultatua)
- Museu de memòria oral. Les Alqueries: <http://www.lesalqueriespedia.com/tot-arxiu/museu-de-memoria-oral> (2019ko azaroaren 15ean kontsultatua)
- Pilota Girls. Sra. Polaroiska: <http://cargocollective.com/srapolaroiska/PILOTA-Girls-2012> (2019ko abenduaren 2an kontsultatua)
- Soinu Mapa: <http://www.soinumapa.net/> (2019ko azaroaren 16an kontsultatua)